

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Jendurrean jartzea 54. sektorea (Arangiz industrialdea) hitzarmen sistemaren bidez urbanizatzeko hitzarmena

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 31n egindako ohiko bilkuran:

Lehenengoa: Gasteizko Udalaren eta Arangiz industrialdeko 54. sektorearen jabearen arteko hitzarmen-proposamena jendurrean jartzea, zein Gasteizko HAPOk sektore hori hitzarmen sistemaren bitartez urbanizatzeko baita.

Bigarrena: Jendurrean jartzeko epea zabaltzeko xedatzea, ALHAOn iragarkia argitaratuz, hoguei laneguneko epean alegazioak aurkezterik izan dadin.

Hirugarrena: Erabaki hau eragindako jabeari jakinaraztea, alegazioetarako ezarritako epean egokitzat jotzen dituenak aurkezterik izan dezan, administrazio honen aurrean.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea —, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 10ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

Hitzarmenaren testua

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzean.

Bildurik

Batetik, G. U. A. jauna –adinez nagusia, Gasteizko bizilaguna, helbidea: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25— . eta bestetik, M. B. U andrea –adinez nagusia,, helbidea: Foru kalea, 14-6, NANA.–

Esku hartzen dute

G. U. A jauna —Gasteizko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz; helbidea: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, Gasteiz; IFK; 0106800-F)— Gasteizko udalaren alkate lehendakaria den aldetik, eta karguak berak hitzarmen hau izenpetzeko aitortzen dion ahalmena duelarik.

M. B. U.andrea, administratzaile solidario gisa– Remelec SL merkataritza-sozietatearen izenean eta hura ordezkatuz; mugarik gabeko iraupeneko; helbidea; Gasteizko Posta kaleko 14-16— . Sozietatea Gasteizko A. P. A notario jaunak baimendutako eskritura bidez eratua da, 2001eko otsailaren 14an, eta Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (Sozietateen

967 liburukia, sekzio orokorra, 71. folioa, VI 7.812 orria, 1, CIF B01315258 inskripzioa), Gasteizko A. P. A notarioak 2009ko urriaren 28an baimendutako eskritura bitartez eraturako ahalmenen arabera (Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatuta, 967 liburukia, 82. folioa, 8. sekzioa, VI 7.812 orria, 6. inskripzioa 2009ko azaroaren 11n).

Gaitasuna

Parte hartzaileek gaitasun nahikoa dute dokumentu hau hitzartzeko eta agiri honen aurka ez egiteko konpromisoa hartzen dute. Aldez aurretik ados jarrita hauxe

Adierazten dute

I. Agertutakoa hitzarmen honi erantsitako koadroan agertzen diren orubeen jabea dela, zeintzuk Arangiz industrialeko S-54 sektorearen barruan dauden.

II. Gasteizko Udalak 2018ko maiatzaren 25ean onetsi zuen behin betiko Arangiz industrialdea S-54 sektorearen plan partziala (2018ko ekainaren 22ko ALHAOn argitaratua, 72. zk). Plan partzial horretan, hitzarmena ezarri zen gauzatzeko sistema gisa.

III. Agertutakoa hirigintza-eremuaren ehuneko 100aren jabe da, beraz, jabe bakarra.

IV. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluekin bat, hitzarmen sistemaren bidez jokatzeko ezinbestekoa da honakoak idatzi eta onestea:

Klausulak

Lehena. Jabeak birpartzelatze-agiria egiteko konpromisoa hartzen du, jarduketaren onurak eta kargak ekitatez banatzeko.

Bigarrena. Jabeak konpromisoa hartzen du nahitaez eta doan laga beharreko lursailen eta ondasunen ekarpena egiteko, legean, plangintzan edo hitzarmenean ezarri bezala.

Hirugarrena. Jabeak konpromisoa hartzen du jarduketa-unitateari legeak, plangintzak edo hitzarmenak izendatutako urbanizatzeko-karga guztiak bere gain hartzeko, eta urbanizatzearen, azpiegituren eta zerbitzuen obra guztiak egikaritzeko.

Laugarrena. Hitzarmena izenpetzen dutenek bermatu egingo dituzte jabeak administrazioaren aurrean hartutako konpromisoak, horretarako urbanizatzeko-kargen ehuneko 7aren bermea formalizatuta eta emanda.

Bosgarrena. Hitzarmena izenpetzen denean jarriko da indarrean, eta bertan ezarritako konpromisoak bete arteko indarraldia izango du. Edonola ere, hitzarmena izenpetzetik eratorritako konpromisoak bi urteko epean bete beharko dira (izenpetzen denetik kontatuta), salbu eta aldeek luzatzea erabakitzen badute.

Seigarrena. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 76. xedapen gehigarriarekin bat, udalak planeamendurako ahalmen osoa izaten jarraituko du, interes publiko arrazoiak tarteko. Azkenean, aipatutako birpartzelazioa behin betiko onesten ez bada, hitzarmena suntsituta geratuko da zuzenean.

Zazpigarrena. Birpartzelatze proiektua behin betiko onesten denean egingo du jabeak emakida.

Zortzigarrena. Hitzarmen honen xede diren lursailak edozein tituluren bitartez hirugarrenei emateak berekin ekarriko du eskuratzailerak hitzarmenaren eta dagokion birzitatze-proiekturen eskubide eta betebeharretan subrogatzea. Jabeak hitzarmen honen bidez bere gain hartutako betebehar guztiak betetzeak berekin dakar hitzarmen honen edukia transmisioen tituluan kontsignatu beharra.

Bederatzigarrena. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak zazpigarren xedapen gehigarrian jasotakorekin bat, Gasteizko Udalari dagokio hitzarmen hau

onestea; alde zuzenetik jendaurreko informazio-aldia zabaldua, 20 eguneko, eta hitzarmenaren testu osoa ALHAOn argitaratuta.

Hamargarrena. Hitzarmen honek izaera juridiko administratiboa du, eta udalak ebaztuko ditu hitzarmena interpretatzeari, aldatzeari eta ebazteari buruz sor daitezkeen auzigaiak, eta udalaren erabaki horiek agortu egingo dute administrazio-bidea, eta horien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legean ezarritakoarekin bat.

Klausula gehigarria

Halaber, Diputatuen Kontseiluak otsailaren 22an emandako 7/2000 Foru Dekretuaren bidez behin betiko onespena eman zitzaion Gasteizko HAPOaren xedapen aldaketari, Arangizeko 6. poligono fiskaleko 50. lursailari buruzkoa (2000ko martxoaren 8ko ALHAO, 29. zk; eta 2000ko martxoaren 23ko EHAA, 58. zk). Aipatutako Foru dekretuak zehazten duen lursailaren emakida osoa gauzatzeko – Gasteiztik Bilborako autobioaren (N-622) paraleloa dago–, eremuaren sustatzaileak konpromiso hau hartzen du: jatorrizko funtsaren gainerakoa - (0059-0003-1284 landa lursaila eta 0059-00031993 hiri lur industrial) udal administrazioari doan eta kargarik gabe ematekoa, honakoak gauzatzen direnean: administrazio egoitzan birpartzelatzea onestea, sortutako lursailak katastroan sartzea eta Jabetzaren Erregistroan inskribatuta egotea. Konpromiso hori 0059-0003-1993 A lursailaren desjabetzearen balioaren adinako fidantza bidez bermatu beharko da. Lursailak 453,82 metro koadroko katastro-azalera du; horrenbestez, 453,82 metro koadro x 46,07 euro/metro koadroko = 20.907,49 euroko balioa.. Fidantza hori osorik itzuliko da orubeak Jabetzaren Erregistroan inskribatu eta udalari eskritura publikoan ematean.

Orobat, udal administrazioak 0059 0003-1993 A katastro-erreferentzia duen lursailaren lurzorua kalifikazioa aldatu beharra izango du, egokitzat jotzen den bidezko legea baliatuta, eta berdegune kalifikazioa izatera pasako da (E8-ZV). Aurreko puntuan adierazitako konpromisoa tarteko jasoko du udalak lursaila eremuaren sustatzailearengandik.

Honen bi alde izenpetu dituzte bi aldeek, adostasunez, eta ondorio bakarrerako, goian adierazitako leku-egunetan.

ERANSKINA.

Birpartzelatzeak eragindako lursailak

Zenbakia	Jabea	Katastro erref.	Azalera
1	REMELEC, S.L.	59-3-1720 59-3-1282	17.376 m2 3.576 m2
2	REMELEC, S.L.	59-3-1993 A 59-3-1993 B 59-3-1284	454 m2 3.686 m2 375 m2

Sektorerako emandako lursailak

Zenbakia	Jabea	Azalera	Emandako lursailen ehunekoa	Katastro erref.
1	REMELEC, S.L.	17.376 m2	82,50	59-3-1720
2	REMELEC, S.L.	3.686 m2	17,50	59-3-1993 B
		21.062 m2	100,00	